



# ADOS

EUSKADI  
GLOBALERAKO  
ETORKIZUN  
EGITASMOA

Autogobernua,  
nazioartetzea eta  
parte hartzea

Martxoak 2011



1. Sarrera: Helburuak, eragileak eta aldiak
2. Diagnostika edo abiapuntua
  - Esparru sozio-ekonomikoa
  - Esparru sozio-politikoa
  - Bide politiko eta demokratikoak erabiltzeko exigentzia
  - Balore etikoak indartzea
3. Testuinguru politiko berria: Euskadiren baketzea
4. Ekimenaren gida-oinarriak
5. ADOS ekimena:
  - Euskal auzia
  - Aurrerapena eragozten duten oztopoak
  - Egitasmo berrirako oinarriak



**Sarrera:  
helburuak,  
eragileak eta  
aldiak**

## Lau helburu

ADOS " ekimen politiko,ekonomiko eta soziala" da eta bere helburua da Euskadirentzako oinarri zabaleko etorkizun egitasmo garatzea, euskal gizartearekiko lankidetzan eta gehiengo baten eskariei erantzunda.

ADOS ekimenak lau helburu ditu:

Egitasmo bat garatzea, hurrengo urteei begira bizikidetzaren demokratikorako euskal esparrua indartzeko eta sendotzeko.

Euskal hiritarrentzako autogobernu sistema berria garatzea, XXI. Mendeko erronkei erantzuna emateko aukera demokratiko guztiekiko begirunean eta akordiorako asmo baten oinarrian.

Euskadiren nazioartetxe ekonomiko,kultural eta politikoa garatzea.

Parte hartze politikoan eta hiritarren parte hartzean oinarritutako kultura demokratiko berria sustatzea.

## Lau eragile

EAJ-PNVk egitasmo hau garatzen du lau funtsezko eragileekin etengabeko lankidetzan eta alderatze lana eginik:

Gizarte zibila.

Euskal eragile ekonomiko eta sozialak.

Euskal eragile politikoak.

Europa eta nazioarteko erreferente ekonomiko,politiko eta kulturalak.

ADOS egitasmoa lau fasetan garatuko da eta bakoitzean arestian aipatutako lau eragileak hartuko dira kontuan:

- 1 Gizarteari egoera politiko,ekonomiko eta soziala aurkeztea.
- 2 Gizartearekin alderatzea, ekarpenak eta partekatutako lana, Euskadirako etorkizun egitasmoa garatze aldera.
- 3 Egitasmoa aurkeztea eta gizartean zabaltzea.
- 4 ADOS ekimena euskal erakundeetan, estatuan eta nazioarteko erakundeetan garatzea.

---

ADOS ekimenaren abiapuntua da EAJ-PNVk euskal aberria eraikitzen jarraitzeko egitasmo partekatua planteatzeko duen bokazioa, era berean Euskadi mundu globalaren abangoardian kokatzeko.

ADOS egitasmoaren abiapuntuan gure inguru hurbilaren eta nazioarteko inguruaren egoera politiko,ekonomiko eta sozialaren azterketa dago eta horrekin batera, gure autogobernu sistemaren oraingo garapen maila.

ADOS hausnarketa eta proposamen prozesua da Euskadi eta bere erakunde sistema euskal gizartearen beharrianetara bere nortasun propioaren arabera modernizatzeko eta eguneratzeko.



## Diagnosia edo abiapuntua



## Esparru sozio- ekonomikoa

ADOS ekimenak abiapuntutzat hartzen ditu Think Gaur Euskadi 2020 eta Think Gaur Nafarroa 2020 hausnarketa prozesuak.

Euskal errealitateak gure inguruan izan diren eraldaketa sozial,ekonomiko,kultural eta politikoek zehazten dituzte. Euskadi, gaur egun herri anitza da ikuspuntu politiko,sozial eta kulturaletik aztertzen badugu.

Ikuspuntu sozio-ekonomikotik aztertuta, eraldaketa esanguratsuak honako hauek dira:

- 1** Globalizazio prozesuak eta IKTek euskal gizartearen harreman zerumuga zabaldu dute. Euskadiko bizi-esparrua aberats eta konplexuagoa da, eta honek nortasun eta talde identifikazio prozesuak modulutzen ditu.
- 2** Ongizate maila jaso da baina merkatuak eta kontsumoak eragin handia dute pertsonen bizimoduan eta elkar-konpromisorako baloreen presentzia mugatzen eta murrizten du.
- 3** Inguru sozial eta ekonomiko global berria, eta bertan mundu mailako erregio produktzaile berriak eta merkatu berriak agertzen dira, ohiko ekonomia produktzaileko garapenerako baldintza ezberdinekin eta mendebaldeko merkatuak derrigortzen ditu jasangarritasun ekonomikorako formula berriak bilatzera.
- 4** Aurrerapen ekonomikoa produzitu da ekimen pribatu eta publikoaren ahalegin partekatuari esker. Dena dela, honekin batera ez dira sendotu garapen ekonomiko arduratzea indartzeko balore eta pizgarri sozialak. Espekulazioan oinarritutako aberaste eta hazkunde ekonomikoak ez dira behar bezala sozialki arbuatu.Lanaren eta norbanakoaren ahaleginaren balorazio eskasa eman da.
- 5** Norbanakoaren erreferentziako esparruan, "pertsonek" eta talde erreferentziako esparruan "erkidegoak" kontuan harturik, gero eta anitzagoa eta konplexuagoa den errealitatearen aurrean gaude, eta aldaketak abiadura bizian ematen dira.

Jarduera politikoaren gizarte esparru sozial propioak ere eraldatze garrantzitsuak bizi izan ditu hiritarrek politikarekiko duten harremana baldintzatzen dutenak:

- 1** Estatuaren eskumen eta gaitasun eksklusiboak ahuldu dira, Europar Batasuna moduko erakunde politikoak sendotu dira, globalizazio ekonomikorako prozesuari erantzuna emateko.
- 2** Gorako bidean dauden esparru ekonomiko eta sozialen bultzada eta gaitasunak jardun politikoak ongizate eta segurtasun esparru publikoa artikulatzeko duen egiazko gaitasuna berregituratzen ari da.
- 3** Indibidualtasunaren hazkundera bizi dugu eta honekin batera murriztu egiten da erkidegoarekiko ardura. Testuinguru honetan, parte hartze politikoak behera egiten du eta gizartea eta politikaren eta bereziki alderdi politikoaren arteko distantzia handitzen da.
- 4** Kultura politikoaren produkzio eta gizarteratzea gero eta gehiago baldintzatzen dute informazio eta komunikazio gizarteak ezarritako eskakizunek, gizarte demokratiko aurreratuetan kultura demokratikoa eta erabakiak hartzeko prozesuak baldintzatzen dituzte.

---

Eraldaketa hauek guztiek bizi dugun krisialdi egoerari lotuta, ondorio garrantzitsuak ditu gure etorkizunerako. Eta neurri handiago batean, kultura etikoan eta parte hartze politikoan aipatu diren defiziten ondorioetan oinarria duen krisialdi ekonomiko honetan.

## Bide politiko eta demo- kratikoak erabiltzeko exijentzia

Euskadin ezinbestekoa da ETaren terrorismoaren inguruko hausnarketa sartzea, mendebaldeko demokrazien testuinguruan, bakarra den bortxazko errealitatea.

ETaren bortxakeria terroristak arrazoitzeko inolako argudiorik gabe, sufrimendua eta mina eragin ditu Euskadi barruan eta Euskaditik kanpo. Asko deuseztatu du. Ez du ezer eraiki. Bere ekintzak kalte konponezina eragin du eta bizikidetzaren publikorako esparrua eta kultura demokratikoa kaltetu ditu.

Terrorismoak "euskal" izenarekin deitutako oro estigmatizatu du eta era nabarmenean kaltetu ditu Euskadiren kanpo irudia, erakundeak, enpresak eta euskal hiritarrak.

---

Euskal gizarteak eragile politiko guztiei eskatzen die bortxakeria eta terrorismotik guztiz aldentzea eta bide politiko eta demokratiko hutsen aldeko konpromiso argia hartzea.

Balore etiko eta demokratikoen indargabetzeak ez dute soilik esparru politikoa eragin, baizik eta bortxakeriaren iraupenak eta gizartearen zati batek onartu izanak euskal gizartearen zati nabarmen batzuk eraman ditu esparru etiko eta demokratikoan distortsioak mantentzera, bereziki kezkarria izan da, euskal gazteriaren zati handi batearengan gertatu delako.

Beraz, guztiz beharrezkoa da, politikatik ere, bizikidetzarako euskal eszenatokia bultzatzea, balore demokratikoetatik gizarte konplexu, anitz eta aurreratuaren erronkei ekiteko. Bortxakeria terroristak eragindako gizartearen eskarmentutik ikasi behar da eta datozen belaunaldientzako bizikidetzarako etorkizun sendoa osatzea.

Gure gizartearen esparru guztietako balore etikoak indartzea. Gure erakunde eta gure gizartearen etikaren muga gorago jarri behar da. Denok gehiago eskatu behar dugu ikuspuntu etikotik. Euskal gizarteak protagonismo nabarmenagoa hartu behar du subjektu aktibo eta demokratiko gisa, giza eskubideen eta kultura demokratikoaren aldeko defentsan. Euskal gizarteak oxigenoa eman behar dio sistema demokratikoari eta bere indar etiko eta indar politikoak eraldatzeko indarra osatu behar dute.

Prozedura demokratikoaren eduki etikoen inguruko adostasunik eza handiegia da gure erkidegoan. Adostasun hau ezin da politikoaren esparrura mugatu, euskal gizartearen gainerako esparruetara zabaldu beharra dago. Gizarte zibilaren indar etikoa demokraziaren beraren zati bat da.

Gure balore, jarrera eta jarduera politikoen inguruko hausnartu beharra dago; hau da, azken urteotan praktikatu dugun kultura politikoaren inguruan, alderdi politikoen arteko elkarrizketa integrala eragozten ari baita; eragile bakoitzak mahai gainean jartzen dituen edukin politikoen "bateraezintasunaz" hausnartu beharra dago. Gure "kultura politikoa" horrela gauzatzeak komunikatzea eta blokeo egoerak eraldatzea eragozten digu.

## Balore etikoak indartzea



**Testuinguru  
politiko berria:  
Euskadiren  
baketzea**

## Behin betiko bakerako hiru arrazoi

Egoera politikoa goitik behera aldatu da Euskadin azken aldian. Euskal hiritargoak gero eta hedatuago dagoen itxaropena dauka, behin betiko bakea lortzeko. Iraganeko bake ekimenak garatu gabe geratu ziren eta horrek frustrazio sentimendu handia eragin du biztanlerian. Oraingoan, ordea gauzak aldatzen hasi dira eta aldaketak oinarrietatik hasi dira, baina gizarte ilusioa ahulagoa da azken hamarkadan ezerezean geratu diren prozesuen eraginez.

Euskal gizartearen gehiengo zabala konbentzituta dago ETaren jardueraren amaierara iristen ari garela, eta konbentzimendu honetarako hiru arrazoi daude:

**1** Era transzendentalean, euskal gizartearen gehiengo zabal batek betidanik gaitzetsi izan ditu ETaren jardunak. Gaitzespen honek irmotasun berezia hartzen du trantsizio demokratikoa eman zenez geroztik. Gizarteak jarrera aktiboa mantendu izan du honen inguruan. Urteek aurrera egin ahala, terrorismoare erabilpena jasanezin bilakatu da euskaldunontzat eta gizarteak berak ito du bortxakeriaren legitimazioa.

Honi lotuta eta terrorismoarekiko iritziarekin batera, nazioarte mailan eman den gaitzespena izan da, bereziki "11"n gertatutakoaz geroztik.

**2** Bakerako itxaropenari arnasa ematen dion bigarren elementua da Ezker Abertzale Historikoan izan den aldaketa estrategikoa, bide demokratikoen alderdian jarri da eta urrats esanguratsua eman du, bortxakeriaren erabilpena gaitzetsi duelarik. Ez da irreflexiotik eman den urratsa, baizik eta guztiz alderantziz gertatu da, luzez eztabaidatua, hausnartua eta erabakia izan da Ezker Abertzalea deritzonaren aldetik. Ezker Abertzale politiko honek bere lidergoaren beharra bereganatu du eta ETari adierazi dio bortxakeriak ez duela zereginik Euskadiren eraikitze sozial eta nazionalen.

ETak Ezker Abertzale historikoak legezkotasunik gabe ez du inolako etorkizunik. Aldaketa estrategiko hori izan da gizartearengan itxaropena piztu duena.

**3** Hirugarrenik ETak berak aldarrikaturiko "su eten" iraunkor, egiaztagarri eta orokorrak adierazi egiten du Ezker Abertzalea deritzonak adierazitako borondateaz ohartuta dagoela eta bide hori ibiltzeko posibilitatea aztertzen egon daitekeela.

Euskal gizarteak aukera guztietaz baliatzea eskatzen du. Bakeak goi mailako balioa du gure herrirako; horregatik, denen artean ahalik eta ahaleginik handiena egitea merezi du, ager daitezkeen egoera guztiei etekina atera diezaiegun.

Zer da aukera guztiei etekina ateratzea?

Bakea, berez, helburu gorena izatea, eta ez dugu onartu behar inork bakearen ura bere interes politikoen errotara eramaterik.

Aukera guztietaz baliatzea da politikaren baliatzeari demokraziarekiko errespetu eta konpromisoan ekitea. Ezinbestekoa da ikuspuntu demokratiko batetik, eta ezinbestekoa da Euskadiren baketze prozesurako.

Ezker Abertzaleari bide demokratikoen aldeko apustua exijitzea, eta, aldi berean, ilegalizatuta mantentzea, gainditzea zaila den kontraesana da. Are gehiago, Ezker Abertzalearen ibilbide demokratikoa indartzea ezinbestekoa da bortxakeriaren legitimazioa historiaren parte bat izatera igaro dadin.

Osoko parte hartze politikoa ahalbidetu behar da, ordezkaritza instituzionalerako gaitasuna sentsibilitate guztietara irekiaz.

---

Testuinguru honetan, bake eta adiskidetzearen aldeko kultura popularra indartu beharra dago, ez dugu ahaztu behar bortxakeria izan den hamarkadetan eragindako sufrimendua. Bortxakeriatik demokraziarako trantsizio honetan parte hartuta, terrorismoak eragindako biktima guztiak aintzat hartuta eta gogoan izanda, bortxakeriaren biktima guztiak babestuta, ETAko presoek senideen egoera hobetuta.

Bortxakeriak  
eragindako  
sufrimendu  
pertsonalari  
arreta  
ematea



# Ekimenaren gida-oinarriak



EAJ-PNV euskal lehen alderdi politikoa da eta hori delako ardura bikoitza du bakezko eszenatokia eraikitzeke eta partekatutako herria egiteko egitasmoari begira akordio berria bilatzeko proposamena aurkezteko.

Herri egitasmo batek aldebatekotasunarekin apurtzera eramaten gaitu alde bikotasuna ezartzeko, eta "hurkoaren" ideiak ukatzea ordezkatu behar dugu "hurkoaren" arazoia bilatzearekin.

Gure herriarentzako etorkizuna eraikitzeke orduan Euskadin demokratikoki onartua izan den herri egitasmo oro gauzatzeko posibilitatea onartu behar dugu, eta hori garatzeko baldintzak adosteko beharrezana.

---

EAJ-PNV euskal gizartearen sustraitik sortu da, euskal gizartearen eta Euskadiren alde lan egiteko. Ekimen berri honi ekiten diogu askatasun, ardura, solidariotasun eta gizarte justizia baloreetatik oinarrituta; balore hauek eguneratzen dituzte EAJ-PNVren oinarri gizatiarrak, bere ibilbidean europar korrante demokratikoei partekatzen duten idearioak biltzen dituenak.

EAJ-PNVk euskal aberriarekiko duen konpromisoa autogobernuko erakundeen indartzearen bidez, aurrerabide ekonomiko eta sozialean eta Euskadiren ongizate bermean eta modernizazioan zehaztu da. Beti egin da jardun politikoaren baliatze demokratikotik abiatuta.

Hauek dira Euskal herriaren aurrerapena dinamizatu duten motoreak, eta une honetan ere badira etorkizunerako egitasmo berrirako giltzarriak.



ADOS ekimena:

1. Euskal auzia



Egitasmo  
politiko  
guztiak dira  
zilegiak bide  
demokrati-  
koetatik  
abiarazten  
badira

Erronka,  
nortasun  
politiko  
partekatuaren  
onarpena  
zabaltzea da

Euskadin sustrai historikoak dituen arazo politikoa dago. Erronka, nortasun politiko partekatuaren onarpena zabaltzea da. Egitasmo guztiak dira zilegiak eta egingarriak, giza eskubideekin eta oinarri demokratikoekin bat eginik garatzen baira. Eta egitasmo guztietan ere beharrezkoa izango da hiritarren bultzada eta onarpen zuzena, hiritarrek argi izango dutelarik Euskadiren etorkizuna era aske eta demokratikoan erabakitzeko gaitasuna dutela.

Espainiar estatuko trantsizio demokratikoaren une historikoan eta Euskadiko Autonomi Erkidegoari dagokionez, Gernikako Estatutua topagunea izan zen, legezkotasun politikorako subjektu bera partekatzen ez zuten eragile politikoen atxikimendua lor zedin.

Estatutuarekin, Euskadiko Autonomi Erkidegoaren historiako instituzionalizatzerik gorena erdietsi da . Gernikako Estatutua eta Euskadiren A.Eko gobernuen autogobernu gaitasunaren baliatzea , hazkunde instituzionalaren ezezik hazkunde sozial eta ekonomikoaren giltzarriak ere izan dira.

Dena dela, Estatutuaren jatorrizko itun izaera aldatu da ,bere garatzeko ahalmena aktiboki eragotzia izan delako. Espainiako sektore politiko nagusien ustetan urrunegi joan da Estatuaren osaketa anitzaren garapenean eta gobernu ezberdinek Euskadiren osoko autogobernuaren garapena eragotzi dute eta murriztera ere iritsi dira oinarrizko lege harmonizatzaileen bidez. Estatu anitzean atzera pausuak emateko dinamika hau areagotu egin da eta zalantzan jarri da espainiar eredu autonomikoa.

Oraingo gertakariak Euskadin trantsizio berria garatzeko beharra inposatuko dute, prozesu konstituziogile berria, marko berri batean harreman instituzional eta politikoen berrosatzea ahalbidetuko duena.

Oraingo testuinguruan euskal erakundeak ahultzeko egiazko arriskua egon badago. Ahultze hau honakoek eragiten dute:

- 1 Bete gabe dauden transferentzien geroratzea.
- 2 Estatuak onartutako oinarrizko legeen bidez eskumen hustea.
- 3 Estatuaren sistema konstituzionalaren ikuspuntu zentralizatzailea.
- 4 Autonomi Erkidegoaren eta Foru Erkidegoaren arteko harreman eta lankidetzaren instituzionalaren geldotzea.

Oztopo horiek gaitzeta da ADOS proposamenaren erronka nagusia, proposamen honen oinarrizko aktiboa da euskal gizarteak argi izatea autogobernuaren aurrerapenak aurrerapen politiko, ekonomiko eta kultural garrantzitsua suposatzen izan duela. Gizarteak ongizate mila handiagoak eskatzen ditu eta eragile politikooi dagokigu autogobernuaren aurrerapena zailagotzen duten oztopoak gaitzeta.

Euskadiko  
erakundeak  
Ahultzeko  
arriskua  
dago

Testuinguru honetan, ADOS ekimenak duela 50 urte Agirre Lehendakariak planteatu zuen euskal aberriaren bultzadaren izpiritua berreskuratzen du.

Bere bokazio eta konpromiso Europazalea, Euskadirako garapen zerumuga gisa, "etorkizunerako ikuspuntua" izan zen eta gaur egun osoko indarra du irekiagoa den eta elkarrekiko harreman handiagoa duen batasunaren errealitate batean. Europa da EAJ-PNVren aukera eta zerumuga, denen artean Euskaditik bertatik mundu global berrirako erronkei erantzuna emateko.

Euskadi gaur da nazio bat termino politiko,ekonomiko,kultural eta sozialetan. Errealitate ekonomikoa Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoaren funtzionamendu eta ahalmenetan oinarritzen da.

Euskadi errealitate kulturala da eta irmotasun osoz bere nortasun kultural eta hizkuntzazkoa sendotzea planteatzen du. Errealitate hau ere bada euskal erkidegoa zehazten duena, euskararen lurraldea, Europa mailan erreferentziazko esparru propio eta berezitua.

Euskadiko A.E errealitatea da gizarte ongizate terminoetan, pertsonen ongizatea bermatzeko zerbitzu eta politika publikoen eredu eraginkor eta dimentsionatua du.

Euskadi gizarte errealitatea da nortasun propioan oinarrituta; gizarte anitz eta konplexua da.

Eta Euskadi errealitate politikoa da, legezotasun politikorako subjektua, nortasun propio eta autonomiadun garapen instituzional aurreratua eta autogobernua ditu.

---

ADOS ekimenak nazio errealitate honen garapenean oinarrituta eta ikuspuntu propioetik, euskal hiritarren protagonismotik eta Euskadiko hiritargo osoaren protagonismotik ahalik eta atxikimendurik handiena bilatzen du euskal errealitatearen muinean etorkizunerako herri egitasmo batekin partekatzen diren printzipio hauen inguruan.

Euskal gizarteak hainbatetan adierazi du bere etorkizuna erabaki nahi duela eta beti ukatu izan ditu bere eskubide historikoak onartu ez dituen orden konstituzionalak. Akordio baten artikulazio politikoak ahal den adostasun mailarik handiena erdietsi behar du eta aukera politiko guztien ardurakoa izan behar da. Alderdi politikoei eta ordezkari instituzionalek borondate hori errespetatzeko eta itxura emateko derrigorra dute eta inork ez du betoa ezartzeko eskubiderik.

Norbanakoaren eskubideak eta talde eskubideak onartzen diren gizarte aske eta demokratikoan, gizarte libreetan ohikoa den gizarte fenomenoak eman beharko da. Aniztasun zilegiaren fruitu den aniztasunaren fenomenoak da. Aipatzen ari garen aniztasuna, harreman politiko-sozialetan ere, pertsonen funtsezko eskubidea baliatzen sortutako aniztasun zilegitzat jo behar da, hau da, askatasun eskubidea.

Ezberdinarekin topatzeak -eta ez mugetatik harago izan dezakegunarekin soilik- gizarte bizitzaren esparru guztietan ematen den komunikazio handiagoaren eraginez, baina gure etxe barruan ere, herriak eraman behar ditu ezberdinaren zilegitasuna ezarriko duen nolabaiteko berrikuntza kulturala sortzera, betiere inork bere buruaren afirmazioa eragotzi gabe.

Euskal gizarteak alderdi politikoei eta sistema instituzionalari behin eta berriz eskatu die "normalizazio politikoa" izenarekin ezagutzen den arazoa konpontzea. Aurrera egin ahal izateko, ezinbestekoa da era demokratikoan nazio nortasunak onartzeko bermeak sartzeko posible izango den egoerarako ibilbidea egiteko akordioa. Horretarako, euskal gizartearen aniztasuna onartu beharra dago; horrek egituraketa politikorako era bat bilatzea eskatzen digu eta eragile politiko bakoitzaren abiapuntuen zilegitasuna onartuta, elkar harremanetarako egitura eta egitura horren babes juridikoa onartzea.

Erakundeetako parte hartzea prozesuaren betetzearen bermea da ezarritako joko arauen onarpenaren barruan, prozesuari segurtasun juridikoa emanda eta herri honetarako etorkizun egitasmo baten eraikuntza dagoenaren gainean garatuko dela bermatuta. Ez dugu hutsunerako jauzirik emango, baina aurrera egingo dugu; euskal gizartearen borondate askari inork ezin dio betoa ezarri.

Euskal gizarteak aukeraketa,erabaki eta ongizate maila handiagoetarantz abiatu behar da gure erakundeetan oinarrituta. Gure herri egitasmoa ezin da alderdien arteko borroketara lotuta egon. Herrigintzak diskurtso eta alderdietatik harago, gure erakundearen etorkizunaren ikuspegi konpartituaren sendotzea exijitzen digu.

Euskal  
gizarteak  
bere  
etorkizuna  
erabakitzeko  
duen  
borondatea  
adierazi du

Euskal  
gizarteak  
alderdi  
politikoei eta  
sistema  
instituziona-  
lari eskatzen  
dio  
normalizazio  
politikoaren  
arazoa  
konpontzea

Azken 30 urteotan EAJ-PNVk garatu izan duen jarduera politikoak aurrekaririk gabeko instituzionalizatzea suposatu du Euskadiko Autonomi Erkidegoan; euskal autogobernuaren defentsa eta hedatzean eta autogobernu honen baliatzean oinarritu da, gizarte aurreratu eta sozialki bidezkoa eraikitzeke helburuarekin.

Euskadiren interesak beste edonolako helbururen gainetik defendatzeko dinamika hau bere kontra du une honetan Euskadiren gaitasun guztien hedatzearen kontrako jarrera. Eusko Legebiltzarrean eta Eusko Jaurlaritzan eman den aldaketak euskal erakundeetan estatuko eredu berdintzailearen inposaketa onartzera eramán du. Orain arte garatu izan den herrigintza apurtzen duen egoera da, aipatu dinamika hau bost puntutan laburbilduko genuke:

- 1 Euskadiren nortasun bakanarekiko errespetua.
- 2 Euskal erakundeak etengabe indartzeko borondatea.
- 3 Hiritargoaren borondatea erakundeen jardunaren ardatz nagusi gisa.
- 4 Kudeatze lan eraginkorra politika publikoetan.
- 5 Nazioartean kanpo dimentsio propio eta berezitua.

Horixe da gure Herriak aurrera eramán duen motore -eskema: Eta hori da gure lan taldea etorkizunean indartzeko erabili beharko dugun eskema.

Ziklo politiko berrián murgildu nahi dugu. Orduán, dena izango da ezberdina. Baketzeán eta bizikidetzá demokratikoán sakontzea izango da egoera berri honetarako elementu esanguratsuak. Baina ez dira testuinguru berriaren eragile bakarrak izango.

Euskadiren etorkizunak bi ardatz nagusiren inguruan errotuko da : bizikidetzá demokratikoa giza eskubideekiko osoko errespetua gordeta, eta Euskadirentzako egitasmo politiko berriá bilatzea, konpartitua eta sozialki legitimatua eta euskal hiritargoaren borondatearen bidez adierazia. Ezinbestekoa da euskal erakundeetan prespektiba hau berreskuratzea.

## Herri egitasmo honek lau helburu ditu:

- 1** Bake eszenatokia behin betiko sendotzea.
- 2** Gure herri nortasuna eta gure erakundeak indartzea, etorkizunean euskal hiritargoak bere borondatea adierazteko duen gaitasuna eta adierazitakoarekiko begirunea gure arau sisteman sartzerik izan dezagun. Ez da edonolako lana edo gauetik egunera lor daitekeen ezer, baina bai da prozesu oso baten emaitza.
- 3** Hirugarrenik, gure gizarte esparru estrategikoak indartzea. Funtsean ekonomia, kultura, prestakuntza eta gizarte kohesioa.
- 4** Laugarrenik, Euskadi nazioartetzea eta aldi berean gure gizarte estrategia mantenduta.

Euskadiren eboluzioa ezin da egitura politiko zehatz baten aldeko borrokara mugatu. Etorkizunak beste ezinbesteko elementuren beharra ere badu:

- 1 Euskadin ondo errotuta izatea enpresa eta ekonomi esparruko sistema indartsu eta sendoa izatea.
- 2 Kapitala izatea, finantza eta aurrezki erakundeak, indartsuak, produkzio eta gizarte ehunarekiko konpromisoa dutenak.
- 3 Ahalik eta giza baliabiderik onenak, prestatuak eta gaituak.
- 4 Gizarte kapitala. Gizarte dinamika bizia, gure gizarte sarearen ahultzeari aurre egingo diona.

Zentzu honetan, ez da ezinbestekoa egitura politiko berria izatea lan egiten hasteko eta aurrera egiteko, gure gizartean dinamika berriak irekitzeko.

Beste arlo kezkarria. Hiritargoa politikatik aldentzen ari da.

Ezin izango da gizarte eraldaketarako prozesurik eman, gizartea politikatik aldentzen bada, herrigintzaren balorean sinesten ez badu, lidergo eraldatzailean konfiantzarik ez badu. Horra hor etorkizunerako beste kantoi-harria.

Hala da, gure eragile politikoek arteko kultura politikoak hiritarren gaitzespena jasotzen du. Ez dugu kalearekin konektatzerik lortzen. Hiritargoak beraiengandik urrun dagoen gauzat hartzen gaitu. Ez gaituzte atsegin, ez dute gure hizkuntza ulertzen, eta jakina, oso kritikoak dira gaiak eztabaidatzeko eta aztertzeko dugun erarekiko. Beraz, kaleko jendearekin hobeto konektatzeko moduaren inguruko hausnarketa egin beharko genuke.

Euskal politikagintza aztertzeko erabil dezakegun ikuspuntu guztietatik- argi dago euskal auzia hiritargoa "nekatu" duela indarrez errotu da ezadostasunaren kultura.

Gauzak horrela, benetako ahalegina egin beharko genuke gizarte "zibilarekin" bat egiteko. Kosta ahala kosta. Eta horretarako, gizartearekin berarekin partekatu behar dugu lidergoa.

Amaitzeko: bake, lankidetzeta eta gizarte osoaren estrategia bateratua behar dugu herri estrategia zorrotza garatzeko. Herri estrategia ez da soilik esparru politikotik garatzen; ekidin ezinak dira gizarte estrategia eta estrategia ekonomikoa.

Are gehiago, gure Herriak gizarte aurreratuen eraldatzea ahalbidetzen duten sistemak bereganatu behar ditu, erabakitzeko eskubidea gizartea egituratzeko esparru guztietan instituzionalizatzea nahi badugu; komunikazio eta ezagupenaren gizartean bizi gara. Ez gaude XIX. Mendeko gizartean. Sare ekonomiko, sozial, kultural eta politikotan mundu mailan aurrera egiteko gaitasuna duten herriek baino ezin izango dute bere nortasunaren garapen politikoa gorde.

**Ekidin ezinak  
dira gizarte  
estrategia eta  
estrategia  
ekonomikoa**

ADOS ekimena:

2. Aurrerapena  
eragozten duten  
oztopoak



## Konfiantza giroa berresku- ratzea

Euskal gizarteak jakin badaki inkomunikazio politikoak ez duelako inolako etekin praktikorik. Etengabeko borroka gatazka instituzionalizatzen du eta herri gisa aurrera egiteko tresnen egituraketa ahultzen du. Mesfidantza politika giroa lau arlotan oinarritzen da.

- 1 Egitasmo politikoak defendatzeko jardueren dimentsio etikoaren inguruko adostasunik eza.
- 2 Denonak diren egitasmoak alderdien interesen zerbitzurako erabiltzea.
- 3 Iraganean lortutako adostasunak etorkizunerako egitasmo alderdikoen alde sakrifikatu izana.
- 4 Kultura politikorik eza "hurkoaren" proposamenen arrazoiak bilatzea ahalbidetuko duten testuinguru konplexuetan eragiteko.

---

Ezinbestekoa da akordioetara iristea eta ezberdintasunak partekatutako arauzko testuinguruetan kudeatzea ahalbidetuko duen giro politikoa eraikitzea. Honek ahalbidetuko du eragile politikoen artean konfiantza giroa berreskuratzea eta euskal gizartearekin batera jarduera politikoarekiko lotunea indartzea.

**ADOS ekimena:**

**3. Egitasmo berriaren  
oinarriak**



## Euskal gizartearen zuzeneko inplikazioa

## Hiritarrek erabakiak hartzeko prozesua

ADOS egitasmoaren lehen helburua printzipio demokratikoan sakontzea da, aberrigintzarako bidea, etorkizunaren inguruan hartuko diren erabakien legitimaziorako subjektu den euskal gizartearen inplikazio zuzenaren bidez planteatuta.

Gizarte moderno eta irekietan aldaketa politikoak eraikuntza dinamikoaren bidez produzitzen dira eta hiritargoak erabakiak hartzen ditu eta errealitate politiko berriaren instituzionalizatzeko progresiboa bultzatzen du. ADOS egitasmoak Euskadiren instituzionalizatzeko progresiboaren aldeko apustua egiten du, gizarte ireki batek mundu global batean aurrera egiteko eta garatzeko planteatzen dituen eskariei erantzuna emanda. Herriaren egiturazko eraikuntzarako ildo politiko praktikoa da, beronen planteamenduekiko atxikimendua gero eta handiagoa delarik.

Horrela ba, ADOS egitasmoak Herria indartzeko prozesu integrala planteatzen du, Akordio berri baten oinarrietan autogobernu politiko eta ekonomiko mailaren zabalkundea ahalbidetuko duena, gure herria subjektu politiko den aldetik aldarrikatzearen eraginez.

Euskadiren hazkunde instituzionala, euskal nazioaren hazkundea, euskal hiritarren eskari sozialaren gainean eraikita hazkunde progresiborako prozesua eta "zati baten" betoia ekidingo duen egitasmo baten bidez baino ezin da gertatu.

## Erronka parteka- tuekiko konpromisoa

Euskal hiritarrentzako egitasmo bat osatu beharra dago. Etorkizunik ez dago zatiketarik, banaketarik eta aurkakotasun politikoaren betierekotzetik. Herriek bizirautea lortzen dute denonak diren erronkekiko konpromisotik abiatuta aldi berrietara egokitzeko gai direlako.

Planteamendu horren azpian, ADOS egitasmoak herrigintzaren zutabeei erantzun nahi die, euskal hiritarrek etorkizuneko garapen eta aurrerapena bermatuko duen egitasmorako eta gizartearen inplikaziorako oinarri izango diren eskariei erantzutea alegia.

Eskari hauek hurrengo termino hauetan planteatzen dira:

- 3.1 Bizikidetzaren demokratikorako euskal esparrua.
- 3.2 Eskubide eta betebeharrak berberak.
- 3.3 Autogobernurako sistema berria.
- 3.4 Gizartearen legezotasuna eta egitasmo politikoarekiko berriazko borondatea.
- 3.5 Garapen sozio-ekonomikorako eredu propioa.
- 3.6 Nortasun eta hizkuntza bereko erkidegoaren garapena.
- 3.7 Euskadiren nazioartetzea.
- 3.8 Parte hartzean oinarritutako kultura hiritar eta demokratiko berria.

### **3.1 Bizikidetza demokratikorako euskal esparrua:**

Ezinbestekoa da hurrengo urteotan bizikidetza demokratikorako euskal esparrua sendotzea eta zintzotasunean, solidariotasunean, gizarte arduran, bikaintasunarekiko konpromisoan eta denon onerako zerbitzuan oinarritutako elkar bizitza bultzatu.

### **3.2 Eskubide eta betebeharrak:**

Berdintasun berme hau da erkidego anitz, solidario eta aurreratuaren oinarria, urratsez urrats instituzionalizatzen da eta aukera berdintasuna ezartzen du demokratikoki planteatutako egitasmo politiko guztiak gauza daitezen eta esparru publiko berean bizi diren nortasun kolektibo guztientzat.

### **3.3 Autogobernu sistema berria:**

Euskal hiritarrentzako autogobernu sistema berria garatu beharra dago euskal hiritar horien borondatearekiko begirunean oinarrituta, XXI mendeko erronkei erantzuna emateko.

### **3.4 Zilegitasun soziala eta egitasmo politikoarekiko berariazko borondatea:**

Euskadirako etorkizunerako egitasmo politiko partekatu orok beharko du gizarteak emaniko zilegitasuna. Alderdi politikoek nagusiki eta gizarte eragileek akordioak erdietsi beharko dituzte eta Euskadirako etorkizuneko egitasmoari bideragarritasuna eman. Baina, zalantzarik gabe, zilegitasuna beti etorriko da hiritargoak adierazitako borondatearen bidez.

Euskadiren instituzionalizatze prozesu berriaren inguruko gizarte adostasuna euskal gizartearen adierazpenaren baliatze eraginkorrak eta gizarteak bere desioak hautestontzien bidez adierazteko egiteko ukaezinak baldintzatuko dute. Euskadirako marko politiko berria erabakitzeko ataza euskal hiritargoaren eskuetan egongo da.

### **3.5 Garapen sozio ekonomikorako eredu propioa:**

Hezkuntzaren bikaintasunean, berrikuntzan eta gizarte kohesioan oinarritutako eta globala izateko bokazioa duen euskal estrategia ekonomikoa bultzatuta. Ezinbestekoa da kode etiko ekonomikoaren aldeko apustu zalantzagabea egitea, pertsonen bikaintasunaren aldeko apustua egitea eta eta gure herrian lehiakortasuna bultzatuko duen ezagupen aurreratua sortzearen alde egitea.

Emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorraren eta egoera txarrean daudenen integrazioaren aldeko apustua egingo duen eredu bultzatuta; bizkortze demografikoaren aldeko apustua egingo duen herri eredu, garapen jasangarriko testuinguruan gizarte eredu bidezko eta aurreratuaren aldekoa.

Ezinbestekoa da ongizaterako eta gizarte integratzeko norabidea hartu duen Euskadiren alde egitea. Ongizatearen estatua jasangarri egin beharra dago; gizarte politika publiko eraginkor eta aurreratuak garatuta. Gure nagusiekiko solidariotasuna, gaigabetuekiko solidariotasuna, gizarte bazterketa arriskuan dauden pertsona guztiekiko solidariotasuna da lehen garapen faktorea. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna era aktiboan errespetatzen duen gizarte bat. Eta, denon artean egin behar dugu. Ez da soilik erakunde publikoek egin beharreko lana. Euskadi gizarte solidarioa izan behar da barruan eta kanpoari begira, baloretan eta giza kapitalean aberatsa den erkidegoa.

Bikaintasun eta berrikuntzara norabidetuta dagoen Euskadi lehiakorraren alde lan egin beharra dago: herri lehiakorra osatzen duten enpresa eta erakunde berritzaileekin eta jardura produktiboaren erdigunean pertsona dagoela oinarri harturik. Lehiakorra izateko sortu egin behar da, balio erantsia duten produktuak sortu behar dira eta mundu guztian saldu behar da. Ezagupen handiak dituzten pertsonak behar ditugu mundu globalean gure jardura garatzeko.

Euskadi berrikuntza herrialde bilakatu nahi dugu. Horretarako beharrezkoa izango da euskal gizartearen balore berriak bultzatzea, kultura ekintzailea bere zabaltasun osoan ahalbidetzea, gure herriarentzako balio erantsi handia duten egitasmoak bultzatzea, berrikuntza aplikatu eta irekia ahalbidetzea eta gizarteari onurak era eraginkorrean ekarri ditzionak.

Euskal gizartearen gizarte langilea da, zorrotasunean, arduraren, zintotasunean eta konpromisoan oinarritutako lan kultura bat du. Hauxe da krisialditik irteteko bermerik onena: euskal gizartearen baloreak, gaitasuna eta eguneroko jardura.

Enpresa eta erakunde lehiakor eta internazionalizatuak behar ditugu, eta horretarako ezinbestekoa da guztiok berrikuntza teknologikoaren eta kudeatzeko eredu aurreratuen aldeko apustu argi eta zalantza gabekoa egitea. Enpresek beren arazuko egiturak egokitu behar dituzte eta aurkakotasunean oinarritutako lan harreman eredutik igaro behar dugu lankidetzan oinarritutako eredura. Krisi uneetan eutsi beharra zaio baina lehiakorrak izateko aukera izango dugu soilik balio erantsia sortzeko gai baldin bagara.

Euskadiko A.Eko Kontzertu Ekonomikoak herri honi eman dio alde bateko neurriek baldintzatu ezin duten zerga eta aurrekontuetan kudeatze propioa egiteko aukera. Berme eta elkar begirune alde biko sistemak urrezko oinarritzko araua izan behar da erakundearen harremanen funtzionamenduan. Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoak gure nortasun berezitatik sortu den autogobernu sistemaren oinarritzko tresna dira.

### 3.6 Nortasun eta hizkuntza erkidegoaren garapena:

Euskal erkidegoa nortasun propio anitz eta munduari irekia izango duena, munduari irekia eta gure herrian era baikorrean eragingo duena eta herri eta kulturen arteko elkarriketarako mundu mailako eszenatokia osatzen lagunduko duena.

Honek ere harremanen instituzionalizatzea aurreikusten du "euskara lurraldearen" onarrien gainera, hau da, euskal erkidegoa munduan kokatzen duen lurralde kultural partekatua.

Euskara eta euskal nortasun eta kulturaren aldeko apustua egingo duen Euskadiren alde lan egingo dugu; kultura sortzera norabidetutako herria. Informazioaren eta komunikazioaren gizartean euskaraz sortutako edukiak bultzatu behar dira. Euskadik kultur industria indartsua behar du mundu globalean herria izaten ahalbidetuko diguna. Tradizioa berreskuratu eta gure kultura testuinguru globalean eguneratuko dugun herri dinamikoaren aldeko apustua egiten dugu.

Mundura zabalduko gara. Gure kultura zabaldu; beste kulturetara zabaldu; beste kulturekiko eta nortasunekiko harremanak ezarri. Euskadi, euskara eta euskal kultura nazioartera zabaldu behar dira eta beren jarduera komunikazio eta informazio gizartean garatu.

### 3.7 Euskadiren nazioartetzea:

Euskadiren nazioartetze ekonomiko, kultural eta politikorako egitasmoa bultzatu beharra dugu. Nazioarteko erkidegoan era naturalean integratzearen alde lan eginik, nazioarteko sareetan beren dimentsio politiko eta ekonomikoetan parte hartze instituzional, sozial eta ekonomikoan parte hartzea sustatzea.

Politikaren kontzeptu gizabidetsutik abiatuta, Euskadik pobrezian eta azpigarapenean murgilduta dauden beste herrialde eta kontinenteekiko solidarotasun eraginkorra garatu behar du.

### 3.8 Parte hartzean oinarritu den kultur gizabidetsu eta demokratikoa:

Kultur gizabidetsu berria garatzea, parte hartze sisteman oinarri hartuta eta gobernatzeko era berrirako norabidetuta, parte hartze demokratikorako konpromisoari balio berria emango diona.

Hiritargoa lehen mailako eragilea izan behar da politika publikoak eratzeko eta gure herriak dituen erronka estrategikoei aurre egiteko orduan.

Hiritarren parte hartzea sustatu behar dugu ahaleginak biltzeko; hobetzeko, legezatasun handiagoan sakontzeko, eraginkorragoak izateko.

Euskal gizarteak aktiboki parte hartu izan du herriaren elkar bizitzan; gure gizarte honek bere ardura gizabidetsu eta politiko guztia ez du eragile politiko eta instituzionalen eskuetan jarri.

Errealitate hau da herri honen etorkizunari aurre egiteko oinarri demokratiko funtsezkoa.

Zenbat eta aberastasun handiagoa izan gure gizarte eta instituzio ehunean, orduan eta handiagoa izango da gure indarra, nahi dugun etorkizuna eraikitzeke orduan. Hiritargoa gure egitasmoan inplikatu behar dugu, hau da, hiritarren parte hartzerako prozesuak bultzatuta.

Jakin badakigu distantzia bat dagoela politikaren eta kalearen artean; erakundeen eta pertsonen bizi duten eguneroko bizimoduaren artean. Ezinbestekoa da ahalegina egitea distantzia hau laburtzeko eta politika gizakien neurriara egokitzeke.

## ADOS: Euskadirako etorkizun egitasmo berria

### Ondorioa:

Hauek dira herri egitasmo partekatuak planteatzen dituen eskariak Euskadirentzako etorkizun berria eraikitzeko xedez. Gure abiapuntua pertsonen borondatea da, beren balioak eta bizikidetzak kulturala.

Pertsonen sustapen eta garapenerako aukerak eskaini nahi dizkiegu. Askatasunean, solidariotasunean, justizian, konpromisoan eta arduran oinarritutako garapena lehenesten dugu. Eta, euskal nortasuna sustatu nahi dugu mundu mailan nortasun bakana ematen dioten kultura eta hizkuntza erreferenteekin.

Oinarri horren gainean eraiki nahi dugu abangoardiako Euskadi mundu globalean, mundu irekian, mugarik gabe eta harremanak elkarreragintasunetik ezartzen direlarik. Aurrera egiteak erabakia dugu, hezkuntza eta ekonomi ereduak hobetzeko, modernizazioa sustatzeko, jasangarritasuna bermatzeko eta ongizatea bultzatzeko.

Euskal erkidegoak Europako giza garapenaren buruan kokatu nahi du, instituzionalizatzea eta autogobernua hazkunde eta ongizatearen parekide direla ikusteak ematen digun eskarmentuak gidatuta.

ADOS ekimenak abangoardiako gizarte baterako eredu propioa proposatzen du, euskal hiritar guztiok aurrera begiratzerik, aurrea egiterik eta hazterik izan dezagun.

---

**Honakoa da ADOS ekimenarekin  
planteatzen dugun helburua,  
Euskadirentzat etorkizun  
egiteasmo berria eraikitzea eta  
osatzea.**



**ADOS**

**EUSKADI  
GLOBALERAKO  
ETORKIZUN  
EGITASMOA**

Autogobernua,  
nazioartetzea eta  
parte hartzea

